



Funtsezko sozietateak

Proiektu honetan hiru bazkidek parte hartuko dugu eta Forum Sport gure hornitzaile nagusia da. Hauei esker gure bezeroei hoberen egokitzen zaizkien bizikletak eskuratuko ditugu prezio txikiago batean.

Gainera hainbat aliantza burutuko ditugu elkarte, negozio eta ikastetxe desberdinekin, bezeroak lortzeko erraztasuna bermatzeaz gain, behar izango ditugun zerbitzuak modu errazago eta merkeago batean jasotzeko. Hauen artean Ciclos Gorliz bizikleta dendak, konponketak egingo dizkigu eta horren truke guk denda honetan erosiko dugu beharrezko materiala.

Hau guztiarekin gure zerbitzuak arrisku gutxiago izatea, merkeagoa izatea eta bezeroak gure zerbitzuarekin gustura gelditzea nahi dugu..

Taldeko bakoitzaren eginkizunak:

Hirurak monitoreak izateaz gain bakoitzak beste eginkizun zehatzago bat izango du:

Xabi: Ibilbideen planifikatzailea, pertsona hau ibilbide pertsonalizatuak egiteaz arduratuko da (non jan egingo den, non lo egingo den, ze ibilbide hartuko den...).

Hodei: Publizitateaz, pertsonen deiak hartzeaz, pertsonen galderei erantzuteaz... arduratuko da (sekretaritzan). Gainera finantza lanak ere egingo ditu.

Aitor: Bizikleten mantenimenduaz, bezeroen eta bizikleten garraioaz (kamioan edo furgonetan) arduratuko da. Monitorea izan arren pertsona honek hasiera puntuan, ibilbidearen erdian egindako deskantsu denboran eta amaiera puntuan egongo da (beti furgonetarekin).

